



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

PRENTSA OHARRA  
2015/11/16

## **Batzar Nagusiek 2016ko Bizkaiko Aurrekontuen proiektuaren aurrean zuzenketa-eskeak aurkezteko epea zabaldu dabe**

Gaurtik aurrera, batzarretako taldeek zuzenketa-eskeak aurkeztu ahal izango ditue 2016ko Bizkaiko Aurrekontu proiektuaren aurrean. Holan, aurrera jarraitzen dau Lurraldeko kontuen izapidetzeak Batzar Nagusietan, joan dan barikuan Mahaiak zuzenketa-eskeak aurkezteko epealdia zabaltzea erabagi ebanetik eta, horren ostean, zemendiaren 4tik 9ra Foru diputatuek sail bakotzak daukan zenbatekoa batzordearen aurrean zehaztu eta gero.

Batzarretako taldeek, herritarrek, taldeek, alkarteek edo GKE-k aurkeztu dituen 175 alegazinoak eta iradokizunak izango ditue mahai ganean. Proposamen horreetako batzuk orokorrak dira, eta beste batzuk oso zehatzak, oso arazo jakin batzuei erantzuteko edo Bizkaiko Lurraldeko hainbat lekutan Aldundiaren esku-hartzea eskatzeko. Guztien artean, 18 Bizkaiko talderen batek aurkeztutako ekimenak dira, eta beste 157 norbanakoek egindakoak dira.

Batzar Nagusietako Presidentziatik “oso modu positiboan balorau da herritarrek Bizkaiko aurrekontuak hobetzeko emon daben erantzuna”. Ana Otadui adierazo dauenez, “oraindino parte hartzeko bide jaio barria dan arren, ekarpen asko jaso doguz”, eta bere eretxiz hori “pausu txiki bat da Bizkaiko Batzar Nagusiak erakunde hurbilagokoa, gardenagoa eta partaidetzan oinarrituagoa bilakatzeko, XXI. mendeko batzar bihurtzeko”, hain zuzen be.

Batzar Nagusietako Presidenteak gogoratu dauenez, herritarren alegazinoak jasoteko aukera hori, “joan dan legealdian, araudi barria aho batez onartu zanean, batzarretako talde guztiek onartu eben barrikuntza izan da. Orain batzarretako taldeak dira herritarren proposamenak aztertu behar dituenak aurrekontuaren izapidetzean”.

Jatorrizko testuaren aurreko zuzenketa-eskeak aurkeztu eta gero –horretarako epea abenduaren 4an bukatuko da–, batzarretako taldeek herritarren aldetik jasotako alegazinoak edo proposamenak euren ahal izango ditue, eta lehenengo osoko batzarra abenduaren erdialdean egingo da, beste ezer baino lehen testu osoaren aurrean aurkeztu diran zuzenketa-eskeak eztabaidatzeko.

Osoko batzar horren ostean, eta beharrezkoa bada, zuzenketa-eske partzialak eztabaidatuko dira batzordean. Eta Bizkaiko kontuen Batzarretako izapidetzea abenduaren bukaeran amaituko litzateke, Ekonomia eta Ogasuneko Batzordetik igaro ostean geratzen diran zuzenketa-eske partzialak aztertuko dituan beste osoko batzar batez. Igaz 27 zuzenketa-eske aurkeztu ziran, eta hareetatik bat –EH Bilduk aurkeztutakoa– osoko zuzenketa-eske izan zan.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

NOTA DE PRENSA  
16/11/2015

## **Las Juntas Generales abren el plazo de presentación de enmiendas al proyecto de Presupuestos de Bizkaia de 2016**

Desde hoy, los grupos junteros pueden presentar enmiendas al proyecto de Presupuestos de Bizkaia de 2016. Las cuentas del Territorio continúan así su tramitación en las Juntas Generales después de que la Mesa decidiera el pasado viernes abrir el periodo de presentación de enmiendas y de que, anteriormente, entre el 4 y el 9 de noviembre, los diputados y diputadas forales detallaran el disponible de cada departamento en comisión.

Los grupos junteros tendrán sobre la mesa las 175 alegaciones y sugerencias recibidas por parte de ciudadanos particulares, colectivos, asociaciones u ONGs, que han hecho llegar sus propuestas, unas generales y otras muy concretas, para responder a problemáticas muy específicas o sugerir la intervención de la Diputación en distintos lugares del Territorio de Bizkaia. Del total de las iniciativas registradas, 18 corresponden a iniciativas de algún colectivo vizcaíno y otras 157 son propuestas registradas a título individual.

Desde la Presidencia de las Juntas Generales se ha valorado “positivamente” la respuesta ciudadana para mejorar los presupuestos de Bizkaia. Ana Otadui ha confesado que “pese a que todavía éste es un canal incipiente de participación, nos han llegado numerosas aportaciones”, lo que considera “un pequeño paso en el camino de convertir las Juntas Generales de Bizkaia en un parlamento más cercano, transparente y participativo, un parlamento del siglo XXI”.

La presidenta de Juntas Generales ha recordado que esta posibilidad de recibir alegaciones ciudadanas “fue una novedad aprobada por todos los grupos junteros en la pasada legislatura, al acordar por unanimidad nuestro nuevo reglamento. Ahora son los grupos junteros quienes deben estudiar las propuestas ciudadanas en la tramitación de los presupuestos”, ha recordado.

Una vez presentadas las enmiendas al proyecto de Presupuestos –el plazo terminará el 4 de diciembre- en donde los grupos junteros podrán hacer suyas estas alegaciones ciudadanas, se celebrará una primera sesión plenaria a mediados de diciembre, para debatir en primer lugar las enmiendas a la totalidad.

Tras este pleno, en su caso, se debatirán las enmiendas parciales en la Comisión de Economía y Hacienda. El trámite parlamentario para aprobar los presupuestos finalizaría a finales de año con una nueva sesión plenaria que analice las enmiendas parciales que queden tras su paso por esta comisión. El año pasado se presentaron un total de 27 enmiendas, de las que una –de EH Bildu- fue de totalidad.